

MINTZAMENA

Ekintza komunikatiboa: Lagunartean, jarrera adierazteko eta konbentzitzeko asmoz, arazo baten gaineko iritzia ematea.

Oxfam-en txostena

- Oihana:** Irakurri duzu Oxfam-en txostena, Eneko?
- Eneko:** Bai, irakurri dut. Munduko aberastasuna oso gaizki banatuta dago.
- Oihana:** 62 pertsona aberatsenek 3.600 milioi pobrek adina daukate. Ez al da lotsagarria?
- Eneko:** Bada, bai; eta okerrena da handitzen ari dela aldea. Gainera, ez dugu ezer egiten konpontzeko.
- Oihana:** Aizu, badaude moduak mugitzeko eta borrokatzeko. Geldirik bazaude, nahi duzulako da...
- Eneko:** Arraioa! Eta zer egin daiteke, bada? Nik nahikoa daukat nire bizitzarekin: lana, familia...
- Oihana:** Gobernuz Kanpoko Erakundeek lan handia egiten dute. Lagundu dezakezu...
- Eneko:** Horiek adabakiak dira. Estatuek hartu behar dituzte neurriak. Diru asko dago paradisu fiskaletan!
- Oihana:** Ados, baina geuk ere egin dezakegu zerbait.
- Eneko:** Bihotz ona daukazu, Oihana, baina inozente samarra zara.
- Oihana:** Afrikan oso larria da arazoa. Paradisu fiskaletan eskua sartuta, lau milioi haur salbatu daitezke.
- Eneko:** Arrazoia daukazu! Baina munduan azeriek agintzen dute, eta ez dira zu bezain bihotz onekoak.